


LAUKIA

Laukia lau **alde zuzen**, lau **erpin**, lau **kanpo angelu**, lau **barne angelu** eta bi **diagonal** dituen forma geometrikoa da.

Forma geometrikoak geometria zientziak aztertzen dituen objektuak dira. Eta figura horien ezaugarriak eta neurriak analizatzeaz arduratzen da.



Laukiaren azalpena

ZEIN EZAUGARRI DITU LAUKIAK?

1. **Alde zuzenez** osatuta dago. **Alde zuzenak** jarraian dauden **bi erpinek** osatzen duten zuzena da.
1. **Lau erpin** ditu. Laukia osatzen duten aldeen elkargune puntuak dira.
1. **Bi diagonal** ditu. Ondoan ez dauden erpinak elkartzen direnean osatzen den zuzenari diagonal deritzo.
1. **Barne angeluak** ditu. **Bi aldeek** eta **erpin** komun batek osatzen dute **barne angelua**. Eta guztira 360° batzen dute.
1. **Kanpo angeluak** ditu. **Aldeen zuzenak** osatzen dute.
1. Paralelogramo bat da.

LAUKIAREN ATALAK:

Laukiak lau alde berdinez osatuta dago, lau **angelu zuzen** eta bi **diagonal** ditu.


LAUKI MOTAK:



KARRATUA



LAUKI ZUZENA



ERRONBOA

LAUKIZUZENA:

Laukizuzena lau **alde** dituen paralelogramo mota bat da. **Alde** guztiek euren artean **angelu zuzen** bat osatzen dute. **Laukizuzenaren alde** guztiak ez dute luzera berdina.

ERRONBOA:

Erronboak lau **aldeak** berdinak dituen paralelogramoa da. **Erronboek** ez dute **angelu zuzenik**.

Erronboetan, **diagonalak** perpendikularrak dira elkarrekiko. **Erronboaren** azalera diagonalen biderkaduraren erdia da.

LAUKIZUZENAREN ETA KARRATUAREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK:



KARRATUA

Lau **aldeak** BERDINAK dira.

Aldeak LUZERA BERDINA dute.



LAUKIZUZENA

Lau **aldeak** EZ dira BERDINAK.

Goiko eta beheko **aldeak** LUZERA BERA dute eta **eskuineko** eta **ezkerreko** **aldeak** LUZERA BERA dute.


NOLA OSATU DAITEKE LAUKI BAT? ZEIN BESTE FIGURA GEOMETRIKOEKIN OSATU DAITEKE?

Laukiak figura geometriko ezberdinak elkartuz lortu daitezke.

Bi triangelu elkartzea laukia osatzen da:



Lau karratu txiki elkartuz lauki bat egiten da:



Triangeluak eta karratuak elkartuz osatzen da:



Triangeluekin osaturiko laukia:



[Nola sortu laukia](#)

Kontuan izanda 3-4 mailako haurrei zuzenduta egongo dela, hizkuntza matematikoa erabiltzeaz gain, guztiok ulertzeko moduko hizkuntza bat erabiliko dugu. Hizkuntza matematikoa progresiboki erakustea egokia iruditzen zaigu, bat-bateko hitz berri guztiek ikaslea ez urduritzeko.

Bestalde, azalpenak ulerterrazagoak izateko baliabide ezberdinak erabiliko ditugu (argazkiak eta bideoak, besteak beste). Ikasleen interakzioa garrantzitsua da ikaste prozesua ondo doan jakiteko. Egia da irakaslearen rola etengabeko behaketan ere oinarritzen dela, baina garrantzitsua da ikasleen jardueretik erantzuna ikustea (ez da ahozkoa soilik izan behar, irakaslea keinuak ere interpretatuko ditu).

Artikulu hau gauzatzeko, gure aurrezagutzetatik aparte, Mudlen dauden artikulu eta bideoez baliatuko gara, baita liburu edo testu fidagarrietaz ere, eta guztien artean gure txikipedia osatzen joango gara.